



Arartekoaren 2016S-2437-16 Ebazpena, 2016ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak datu pertsonalak babestearen arloan araudia urratu zutela salatzen zuen kexa batean bere esku-hartzea amaitu du Arartekoak.

Aurrekariak

2016ko abuztuaren 18an izapidetzeko onartu zen kexa batean, Arartekoari esku hartzeko eskatu zioten, kexagilea ez baitzegoen ados datu pertsonalak babesteko eskubidearen balizko urraketa batekin.

Kexaren arrazoa hau zen: 2016ko apirilaren 8ko EHAAn (66. zenbakiko aldizkaria) Lanbideko zuzendari nagusiaren iragarki bat argitaratu zen eta bertan kexagilearen datu pertsonalak (izena, abizenak eta NANA) ageri ziren.

Argitaratze horren ondorioz, aipatu datu pertsonalak Google-en sartuz gero EHAAn argitaratutako iragarkia ageri zen eta kexagileak uste zuen hori haren eskubideen aurka doala, informazio horretatik egoera ekonomiko jakin bat ezagutu daitekeelako eta uste zuelako datu pertsonalen babeserako eskubidearen aurka doala.

Era berean, zalantzan jarri zuen informazio hori Interneten egon daitekeen denbora tarte eta uste zuen bere eskubideen aurkakoa dela.

Erakunde honek Lanbideri eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari idazki bana helarazi zien. Horietan, laburbilduz, gai honi buruzko informazioa emateko eskatu genien:

- Zein arrazoi dauden 2016ko martxoaren 15eko iragarkian izen abizenak argitaratzeko eta NAN zenbakiarekin batera.
- Hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari igorritako argibideak zeintzuk izan diren, aipatu den iragarkiarekin batera emandako datu pertsonalak blokeatzeko, argitaratutako datu pertsonaletarako sarbidea aldi baterako mugatzeko, ulertu denean Agintaritzaren Aldizkariaren bidez egindako jakinarazpenaren eraginkortasun epea amaitu dela.
- Lanbidetik eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaritik edo haren egoitza elektronikotik zein informazio jarri ohi den herritarren eskura AZETA Eskubideak baliatzeko aukerari dagokionez, datu pertsonalak zabaltzen jarrai ez daitezen.

Irailaren 27an eta urriaren 25ean Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Zuzenbide Sailaren eta Lanbideko zuzendari nagusiaren erantzunak sartu ziren gure erregistroan.





Horietan, laburbilduz, honako informazio hau eman zen:

EHAren arduradunak kexagilearen datu pertsonalak ezabatzeko prozedura abiatu zen, Lanbideri, fitxategiaren arduradun gisa, bidaltzeko ofizioaren bidez, eskari horrekin eta ezabatze-prozedura jarraitzearekin ados dagoen edo ez adieraz zezan.

Lanbidetik bi txosten bidali ziren:

- Lehenengoaren, 2016ko urriaren 6koaren, edukia kexagileari dagokion aldi baterako etetearen ebazpenaren jakinarazpena, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialaren bidez, sostengatzen zuten arrazoiak justifikatzera bideratuta dago. Interesdunak lanean alta egoeran zegoela jakinarazi izana zela bide abiatutako berrazterketa-espediente batean zuen jatorria ebazpen horrek.
- Aipatu idazkietako bigarrenak, 2016ko urriaren 17koak, Lanbide datu pertsonalak EHAAn argitaratzera legez gaitzen dituen arrazoibide juridikoak ematen ditu. Era berean, azaldu du egindako argitalpenaren eduki zehatza funtsezko datuetara mugatu dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 61. artikuluan ezarritakoa betetzeko.
- Lanbideren erantzunean, halaber, ARCO eskubideak baliatzeko formulario batzuk bazirela jasotzen zen, bai eta gaian trebatutako langileak bazirela ere, eta kexagileak izan zuela langile horiei izaera pertsonaleko bere datuak deusezta zezaten eskatzeko aukera, baina ez dagoela halako eskaerarik egin izanaren berri.
- Aurretik adierazitako ezabatze prozedurari buruz Lanbidek EHAren arduradunari egiterik izango zion erantzuna ez dugu jasota, eta horrekin ados ez dagoela ulertzen da, bidali zigun erantzuna kontuan hartuta. Erantzunean, ezabatzeko eskaria interesdunak berak aipatu erakundearen aurrean pertsonalki egiteko beharra adierazten da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatuko duen araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 25. artikuluan ezarritako baldintzak betetzea xede.

Ondorioz, badaude datu guztiak eta nahikoa osagai honako gogoeta hauek egiteko:

Gogoetak

1. 1978ko Konstituzioak, I. Tituluan, oinarrizko eskubide andana eskaintzen du, zeintzuei eraginkortasun juridikoa ematen baitie eta horiek bermatzeko maila batzuk ezartzen baititu izaera eta helmen askotarikoak diren erakunde eta bitartekoez. Eskubide horien artean ez da berariazko aipamenik egiten datu pertsonalak babesteko eskubideari buruz, baina honela jasota dago





18.4. artikuluan: *“legeak mugatu egingo du informatikaren erabilera, herritarren ohorea eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua eta horien guztien eskubideen egikaritze osoa bermatzeko”.*

Manu konstituzional horretatik eratorria da datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea, edo informazio autodeterminaziorako eskubidea, eta konstituzio jurisprudentziak (guztiengatik, Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 30eko 292/2000 Epaia) intimitaterako eskubidea baino eremu zabalagoko eskubidetzat du.

Hala adierazi du Konstituzio Auzitegiak aipatu epaian:

“La protección de datos no se reduce sólo a los datos íntimos de la persona, sino cualquier tipo de datos de carácter personal, sean íntimos o no, cuyo conocimiento o empleo por terceros puede afectar a sus derechos sean o no fundamentales, porque su objeto no es sólo la intimidad individual, que para ello está la protección que el art. 18.1 CE otorga, sino los datos de carácter personal. Por consiguiente, también alcanza a aquellos datos personales públicos, que por el hecho de serlo, de ser accesibles al conocimiento de cualquiera, no escapan al poder de disposición del afectado porque así lo garantiza su derecho a la protección de datos. (...)” (FJ 6º).

Azpimarratu beharra dago eskubide hori ez dela soilik informatikaren erabilera bidegabearen aurrean beste eskubide batzuk bermatzeko tresna; oinarritzko eskubide bat da, berezko berezitasuna eta beste eskubideekiko autonomia duena.

Ondorioz, eskubide hori ez da intimitaterako eskubidearekin nahasten, zeren informazio autodeterminaziorako eskubide berria ez da geratzen mugaturik, intimitatekoarekin gertatzen den moduan, pertsona arrotzek (zentzu negatiboan) beste batzuen bizitza intimoan egindako eraso eta esku-sartzei kontra egiteko legezko aukerara. Aitzitik, beste dimentsio bat (zentzu positiboan) hartzen du orain, norbanakoak bere datu pertsonaletara (habeas data), intimoak izan ala ez izan, sartzeko eta horien tratamendu eta zirkulazioa kontrolatzeko duen askatasuna aitortzen baitu.

2. Informazioa eskatzeko bidali genituen idazkietan jada jasoarazi zen moduan, Agintaritzaren Aldizkarien bidezko jakinarazpena azaroaren 30eko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/21992 Legeak arautu du, 59. artikulua 5. atalean, 61. artikuluaekin lotuta (argitalpenaren hedapenari dagokionez, eskubide pertsonalak urratzeko aukerari lotuta).

Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoaren 3.j) artikulua arabera, agintaritzaren egunkari eta aldizkariak sarbide publikodun iturriak dira. Horren arabera, bertako informazioa edozein pertsonak ikusi eta tratatu dezake.





Agerikoa da aipatu dugun argitalpenaren bidez, eraginkorrago egiten dela jakinarazpenaren administrazio egintza, araubide juridikoaren arabera, jakinarazpen pertsonala ordezkatzeko aurreikusten dena.

Erregimen berezi horrek trataera orokorrak baino aukera zabalagoa ematen du, baina ez dakar informazioak eragindako pertsonen datuak bermerik gabe gelditzea

Beraz, EHAAn argitaratzeko euskarria ematen duen eremu juridikoa finkatuta, azterketaren bidez jakin nahi da ea egindako argitalpenak betetzen duen datuen kalitatearen printzipioa, eta ea gainditzen duen DBLOren 4. artikulua galdegiten duen proportzionaltasun betebeharra, bi ikuspegitik abiatuta:

- Argitaratutako datuak ea badiren bilatzen den helburua lortzeko beharrezkoak, eta, beraz, EHAren argitalpenean sartzera bideratzen duten datu pertsonalen artean ba ote den beharrezkoa gaineratzea ez bakarrik izena eta abizenak, baizik eta baita NANaren zenbakia, eta,
- Aipatu datuak zer epetan egon behar diren eskuragarri Interneteko bilatzaileetan, edo, beste modu batera esanda: eskuragarritasun horren denboraren mugaketa argitalpena justifikatzen duen helburua lortzeko beharrezkoa den denboraldira doitzea; hau da, egitate administratiboaren eraginkortasuna.

Argitalpenean sartu diren datuak zehazki aztertuta (izena, abizena eta NANA), ezin dira, hasiera batean, gehiegizkotzat jo, izan ere, NANak pertsona bat zalantzarik gabe identifikatzeko aukera ematen baitu, eta hori ez da gertatzen izaera pertsonaleko gainerako datuekin. Horregatik, gerta liteke, eta ez da batere aukera urruna, pertsona baten izenak eta abizenak beste batzuek ere edukitzea, nola senideek hala ezezagunek. Azken finean, NANak datu pertsonalak osatzen dituen identifikazio osagai bat biltzen du aldizkari ofizial batean argitaratutakoaren hartzalea identifikatzeko ondoreetarako.

Horrela, hauxe adierazten du Datuak Babesteko Euskal Bulegoak CN10-018 Irizpenean: *"Beraz, Bulegoari dagokionez, gomendagarritzat jotzen dugu aldizkari ofizialetan egiten diren 8 datu pertsonalen argitalpenek oinarrizko eskubidean izan dezaketen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurriak hartzea, eta Bulegoaren ustez, neurri horien artean irizpide murriztaileak ere egon beharko dira, argitalpenei dagokienez; hau da, argi esateko, zenbat eta datu pertsonal gutxiago argitaratu, orduan eta hobeto. Edozelan ere, arriskuan dauden gainontzeko interesei eta eskubideei kalterik egin gabe egin beharko da hori guzti hori."*

Irizpen horrek berak, honako hau adierazten du berriro: *"Baina, hala ere, argitaratzeko agintzen duen organoei gomendatzen zaio, kasu bakoitza (edo kasuen multzo bakoitza) kontuan hartuta, erabaki dezala zein datu pertsonal argitaratu behar diren gutxienez, eta argitarapenaren bidez lortu nahi den helburu bera lortzeko 'behar diren datuak baino ez daitezen argitaratu'".*





Orduan, azaldutakoa bezalako kasuetan, arretaz balioetsi beharko da zer datu pertsonal argitaratuko diren argitalpen horren helburua bete dadin, eta aintzat hartu beharko litzateke helburu hori datu pertsonal bakarra (NAN zenbakia) argitaratuz betetzeko aukera, izen-abizenak gehitu behar izan gabe. Izan ere, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen informazio batzuk estigmatizatzaileak izan daitezke, batez ere kontuan hartzen bada Euskal Herriko Agintaritza Aldizkariko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuan ez dela eskatzen bilaketa egiteko irizpideetako bat, adibidez, izen-abizenak izatea.

Bigarren gaiari (hedapenaren denbora mugatzea) helduta, gaur egun aldizkari elektronikoak elektronikoak izateak Interneteko bilatzaileek horietan argitaratutako informazioa indexatzeko aukera ematen du eta, horrela, datu pertsonalen titularrak argi eta garbi mugatuta dauka datu horiek erabiltzeko kontrola eta boterea. Beraz, datu pertsonalen zabalkundearen denbora ikuspegia datu garrantzitsua da, kexagileak dioten moduan. Zenbait hilabete igarota, kexagileak modu esplizituan, salatu zuen bere nahietarako kaltegarria izan daitezkeen informazioa presente eta aktibo jarraitzea denbora horretan bai aldizkarian, bai eta eskuragarri egotea bilatzaileen bidez.

Bilatzaileak aldizkarietan ageri den informazioaren hedaduraren irismena nabarmenki zabaltzen duela ezin da alde batera utzi, eta hori pertsonen pribatutasunean nabarmenki esku-sartzea da eta, kaltegarriak izan daitezkeen ondorioak ekar diezazkioke eragina pairatzen duenari horietatik izaera negatiboa eta baztertzatzailea sor badaiteke (langileen hautaketa prozesuetan Internet bidez halako informazioak biltzea ez da batere arraroa).

Hain zuzen, egoera hauekin lotuta (eta potentzialki larriagoak diren beste batzuekin), Interneten ahaztuak izateari buruzko eztabaida eta eskaera eratzten dira.

3. Datu pertsonalak ezerezteko eskubidea erabiltzea ARCOren eskubideetako bat da (Sarbidea, Zuzenketa, Deuseztatpena eta Aurkakotasuna). Eskubide horien bidez, pertsona fisiko eta juridikoei haien gaineko datu pertsonalak kontrolatuko direla eta haien ohorea eta intimitate pertsonala eta familiarra babestuko direla bermatzen zaie. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (16. artikulua) eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legea (DBLO) garatzeko Araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan (31tik 33. artikulura) jasota dago horren arauketa eta datu pertsonalak ezabatzea du helburu, betiere ezegokikoak edo gehiegizkoak direnean. "Ezerezteak, badin eta onartzen bada, datuak blokeatzeari bide emango dio, eta datu horiek administrazio publikoen, epaileen eta auzitegien esku bakarrik gordeko dira, tratamendutik sor daitezkeen erantzukizunei aurre egiteko, erantzukizun horien preskripzio epeak iraun bitartean. Behin epe hori amaituta, datuak suntsitu egin beharko dira.





Guri emandako erantzunean, Lanbideko zuzendari nagusiak ondorioztatzen du ezerezteko eskubidea erabiltzeko interesdunak zuzenean Lanbidera joan behar duela eta honako hauek aurkeztu behar dituela: nortasun datuak, bere NANaren kopia, bere eskaria zehazten duen eskaera, jakinarazpenetarako helbidea, egindako eskaria egiaztatzeko agiriak, eta data eta eskatzailearen sinadura.

Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 23. artikulua, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren garapen Araudia onartzekoak, eskubideen erabilera oso izaera pertsonalarekin ezartzen du, eta, halaber, lege aldetik ez litzateke eragozpenik egongo, behin Administrazioak kexagilearen asmoa ezagututa, Arartekoari aurkeztutako kexaren bidez, bere datu pertsonalak ezabatzeko, eta behin EHAA-n argitaratzen denetik 6 hilabete igarota, aipatutako prozedura ofizioz abiatzeko, DBLOren 4. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta hori 2016ko irailaren 22an Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazio eta Zuzenbide sailak Lanbideren aurrean Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzak abiarazitako ekimenarekin bat etorriko litzateke.

4. Argitaratutako informazioaren zabalkundea mugatzeko antolaketa-neurriak eta teknikoak hartzeko beharra sostengatuz, badira erreferente ezberdinak:

- Datu Pertsonalak Babesteko Madrilgo Erkidegoaren apirilaren 25eko 2/2008 Gomendioak honako hau aipatzen du 10.2. artikuluan: *"la conservación de los datos de carácter personal publicados en Boletines o Diarios Oficiales a través de Internet, en cumplimiento de las obligaciones previstas por Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, y de la normativa sectorial específicamente aplicable, se realice sin perjuicio de la obligación de bloqueo de dichos datos personales cuando hayan dejado de ser necesarios o pertinentes para la finalidad para la cual hubieran sido publicados, sin perjuicio de las excepciones contenidas en esta Recomendación. La recomendación de bloqueo contenida en este artículo permite limitar la publicidad de los datos personales, al mismo tiempo que se garantiza la autenticidad, integridad e inalterabilidad de los contenidos del Diario Oficial que se publique en sede electrónica";* y en el apartado 10.3: *"Con carácter general, la Administración Pública u órgano administrativo competente, actuando en su calidad de responsable del tratamiento, ordenará al titular del Boletín o Diario Oficial electrónico el bloqueo de los datos personales publicados cuando dejen de ser necesarios o pertinentes en relación con dicha finalidad, y dentro de los plazos máximos establecidos por la normativa sectorial específicamente aplicable".*

11. artikuluaaren edukia bereziki adierazgarria da aipagai duenean

"Informe de 4 de abril de 2008, el Grupo de Trabajo del Artículo 29 de la Directiva 95/46/CE, de 25 de octubre de 1995, del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos,



ha analizado la situación legal en relación con la protección de datos personales y los buscadores de Internet, llegándose a la conclusión de que el período de conservación de datos personales por parte de dichos buscadores no debería sobrepasar los seis meses de plazo, ya que no existe una base legal para mantenerlos durante un período de tiempo mayor"; o al Recomendar: A dichos efectos, se sugiere que el responsable del tratamiento, o, en su caso, el Encargado del mismo, implementen en los sitios web objeto de esta Recomendación la utilización de herramientas técnicas e informáticas del tipo 'no robot' que minimicen, en la medida de lo posible, la diseminación de la información de carácter personal a la que se pueda acceder a través de los motores de búsqueda. Asimismo, habida cuenta el estado de la tecnología en cada momento, se recomienda que, para impedir la indexación automática de los datos personales en los motores de búsqueda, el responsable del tratamiento o, en su caso, encargado del mismo, impulsen la incorporación e implementación de cualquier otro tipo de medidas técnicas e informáticas que resulten adecuadas dirigidas a evitar dicha indexación de contenidos con datos de carácter personal".

- *Datu pertsonalak dituen informazioa Internet bidez hedatzeari buruzko Datuak Babesteko Kataluniako Agentziaren 1/2008 Gomendioak, bere 8. atalean, datu pertsonalak Internet bidez zabaltzeko arduraren erakundeek gomendatzen die ... "establezcan los mecanismos necesarios con el fin de garantizar que, transcurrido el plazo de exposición pública determinado por la norma que exija la publicación, se limite el acceso a los datos de carácter personal. En caso de que la normativa de aplicación no prevea expresamente un plazo de exposición pública, la difusión se tiene que limitar temporalmente al periodo necesario para alcanzar la finalidad que justifica la publicación de los datos, teniendo en cuenta especialmente, a estos efectos, si la finalidad de la difusión consiste en la transparencia de la actuación administrativa, la participación en la tramitación de un procedimiento, la eficacia de un acto, la posibilidad de ejercicio del derecho de defensa u otros".*

Era berean, 16. atalean, bilatzaileen neurri gabeko erabilera mugatzeko neurriak hartzeari eta datu pertsonalak babesteko egokiak diren antolaketa-neurriak eta teknikoak hartzeari buruz ari delarik, honako neurri hauek, besteak beste, hartzea gomendatzen du:

- 1. Aprovechar las herramientas que facilitan los mismos buscadores con el fin de evitar que la información se guarde en la memoria temporal de estos.*
- 2. Utilizar protocolos tecnológicos que permitan evitar la indexación de los documentos que contengan datos de carácter personal.*
- 3. Evitar la utilización de ficheros para almacenar los datos de carácter personal que se publiquen y optar por hacerlo a través de soluciones*

técnicas basadas en la información estructurada, como la utilización de bases de datos para acceder y almacenar la información.

4. Valorar la posibilidad de que las partes de los ficheros que incorporen datos de carácter personal se incorporen como imágenes u otros sistemas que limiten el acceso a los campos que contengan datos de carácter personal”.

- Maiatzaren 22ko 385/2015 Errege Dekretuak, Estatuko Aldizkari Ofizialaren antolaketari buruzko otsailaren 8ko 181/2008 Errege Dekretua aldatzen duenak (123 zenbakiko EAO, 2015eko maiatzaren 23koa), EAO arautzeko aldaketan laugarren atal berri bat gehitzen du 385/2015 Errege Dekretua sartzen duen 181/2008 Errege Dekretuaren 13. artikuluan:

“4. No obstante lo previsto en los apartados anteriores, el Suplemento de notificaciones permanecerá libremente accesible en la sede electrónica de la Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado durante un plazo de tres meses desde su publicación, transcurrido el cual se requerirá el código de verificación del correspondiente anuncio de notificación, que tendrá carácter único y no previsible.

Dicho código solamente podrá ser conservado, almacenado y tratado por el interesado o su representante, así como por los órganos y Administraciones que puedan precisararlo para el ejercicio de las competencias que les corresponden.

La Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado adoptará medidas orientadas a evitar la indexación y recuperación automática de los códigos de verificación por sujetos distintos a los contemplados en el párrafo anterior.

Sin perjuicio de lo previsto en la disposición adicional primera, una vez transcurrido el plazo de tres meses establecido en el párrafo primero, la Agencia Estatal Boletín Oficial del Estado facilitará, previa solicitud, la información contenida en el anuncio de notificación únicamente al interesado o su representante, al Ministerio Fiscal, al Defensor del Pueblo, y a los Jueces y Tribunales.»

- EAEren eremuan, martxoaren 6ko 1/2015 Foru Arauak, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala arautzen duen martxoaren 27ko 5/2007 Foru Araua aldatzekoak (GAOren 74. zenbakia, apirilaren 22koa), hirugarren atal berri bat gaineratu dio bere 5. artikuluari eta honela dio hitzez hitz:

“Aurreko ataletan xedatutakoa eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak, iragarkiaren igorleak eskatuta, datu pertsonaletara sarbidea mugatu ahal izango du, behin argitalpenak bere helburua betetzeko epeak amaituta eta ez dagoenean horretara libreki sartzeko aukera iraunarazteko herri-



intereseko beste arrazoirik, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez".

Aurretik aipatutako datuak babesteko agentzien gomendioetatik eta EAOk eta GAOk sartutako arauetatik, eta baita DBLOren 4. artikuluaaren proportzionaltasun printzipioaren interpretazio eguneratu batetik, aldizkari ofizial baten edukien denbora irismena mugatzeko beharra, jada azaldutakoa, ondoriozta daiteke, bai eta informazio hori indexatzeko aukera blokeatzeko beharra ere, pertsonen pribatutasunean esku-sartzea saiheste aldera, behin argitalpenaren xedea (eragingarritasun administratiboa) lortuta.

5. Aztertutako espedientean jardundakotik, aplikatzekoa den araudiaren arabera, Arartekoak ez du irregulartasunik antzematen kexagileari egitate administratiboaren berri iragarki publiko baten bidez jakinarazteko -jakinarazpen pertsonalik ezin izan zen egin- Lanbidek edo Euskal Herriko Aldizkari Ofizialak jarraitutako prozeduran. Horri kalterik egin gabe, behin aipatu argitalpenak bilatzen zituen ondorioak lortuta, informazio hori Interneten iraunaraztetik ingurune pertsonalean erator litezkeen behin-behingo kalteak amaiarazteko hainbat jarduera proposatzen ditugu.

Horregatik guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendioa luzatzen zaie Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari:

IRADOKIZUNA

- 2016ko apirilaren 8ko iragarkian bildutako datu pertsonalak ezaba daitezela, ofizioz edo interesdunak eskatuta.
- Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak neurriak har ditzala aldizkari ofizialetan argitaratutako datu pertsonalen eskuragarritasuna mugatzeko neurri teknikoak, hala aldi baterako, nola Interneteko bilatzaileetarako.
- DBLOren 5. artikuluan ezarritako informatzeko betebeharrari kalterik egin gabe, egoki jotzen da EHAO elektronikoa argitaratzen den egoitza elektronikoan eta Lanbideren web orrian argitaratzen diren datu pertsonalak eskuratu, aldatu, ezabatu eta aurkatzeko eskubideak erabiltzeko aukerari buruzko informazioa ematea, bai eta horren prozedurari eta horretarako formularioei buruzkoa ere.

